



Arriola

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Olá

“... la casería rústica Ferrería de Arria... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que ocupa un área de cincuenta y seis estados...”
DJE, 1/19 or. (1863)



43° 11' 48"

2° 36' 27"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Arrierreka ondoan kokatzen den baserria dugu honako hau, bere garaian ola eta errota izandakoa. Erreferentzia dokumental gutxi jaso ditugu eraikin honen gainean, seguruenik XVIII. eta XIX. mendeetako dokumentazioan *Arria* (**Ikus Arria**) jauregiarekin batera dokumentatu baitzen. 1863ko eskritura batean *Ferrería de Arria* (1863, DJE, 1/ 19. or.) eta *Molino de Arria* (1863, DJE, 1/ 15. or.) moduan agertzen da. 1967ko eraikin-erroldan agertzen da lehen aldiz euskarazko izena, *Arri-Ola* (1967, BUA, CE). Auzotarren artean, beste hainbat kasuetan gertatzen den moduan, *Olá* bezala ezagutzen da.

XIX. mendean oraindik ola eta errota zen eraikinaren gainean jasotako etxea da, eta sasoi horretako ezaugarriak ditu. Izan ere, goranzko

joera nabaria da bere fatxada nagusian, arindu egiten dena goiko balkoi zabalei esker. Isuri biko teilatua dauka eta honen gailurrak finkatzen du etxearen ardatza. Horrela, sarrerako ate ederra erdian irekitzen da eta bere bi aldeetan, leiho bana. Lehenengo solairuan, alboetako leihoak errepikatzen dira eta protagonismoa egurrezko kareldun balkoi batek hartzen du. Ganbara aldeko erdialdeari ere beste balkoi batek ematen dio indarra. Harlangaitza erabili zuten hormak egiteko eta harlandua, osterara, etxearen kantalek eta leihotarako. Jatorrian, harlandua ezik, dena luzitu eta pintatuta egongo zen, baina azkeneko berriztatze lanetan azpiko harria bistaratu egin dute.

toponimia

Arria edo Arrijauregia izeneko etxearen ola, gaur egun “Arria auzoko ola” esango genukeena. Ola hitzak bi esangura desberdin izan ditu euskaraz. Zaharrena, leku batzuetan bizirik dena, “kortabaso” dugu. Kortabasoak mendietan hesitzen ziren lur eremu biribilak ziren. Geroago hemen duen adiera hartu zuen, “burdina egin edo lantzeko lantegia”. Sarritan ola hauek errota moduan ere erabiltzen ziren eta hau izan zen honen kasua ola izatetik errota izatera aldatu baitzen. Arrijauregia izenaz hitz pare bat esan behar dugu. Euskaraz horrelako izenak arruntak dira, batez ere izen berbera duten etxeak bereizteko, eta gure ondarea ere badirelako ahalegin berezia egin beharko genuke zaintzeko.